

# Uzta ederra kontakizunean

JON KORTAZAR



Azken urteotan motel zebilela euskal literatura maiz entzun dudana esaldia eta baieztapena da. Eta entzun arren, nire adostasun falta azaldu dut inoiz baino gehiagotan. Aurtengo abendurako baina, eten egin da joera, eta Durangoko Azokarako kontakizunean, nagusi ageri den genero literarioan, uzta oparoa izan da.

## Ohikoa ez den kontakizuna

Bernardo Atxagaren Enarak nobelari buruzko prentsa oharrrak dio «Irakurleak poliatseginez irakurriko duela Enarak». Arestik «polilito» deitu zion Arantzazuri, hori gogoan hartuz, nobela honi buruz jarraitu dezakegu «poli» aurrizki hori erabiltzen eta aipatu ahots ugarikoa dela, poli-ahosduna, beraz, poli-narratzaileak direla, poli-hariak ekintzetan... baina denen gainetik nik uste poliatxaga dela. Han

dira Atxagak hain gustukoak dituen ezaugarriak: ekintza nagusi batean txertatzen diren pasarteak eta ipuinen bidez sortutako batasuna, zerrenden erabilera, hizkuntza zientifikoari emandako garrantzia, auto-erreferentziarekin jolastea. Badirudi bete apeta bete duela egileak obra arriskutsua eta guztiz pertsonala idatziz. Eleberriaren 255. orrialdean, ia amaieran, Atxagak 'Erlea aldizkariko arduradunak Pedrori egindako gutuna' izenburua duen pasarte bat dakar; Erlea aldizkariko arduraduna, Atxaga bera izan zela kontuan hartuta, kasu berezia egin behar zaio hor esaten denari. Pasarte horretan, narratzaileak Jose Ordorika margolariaren lana komentatzen du, eta hark «antidoxa» obra bat egiten duela azpimarratzen du. Baieztapen hori obra honen poetika gisa uler daiteke. Nobela Anti-doxa da. Ohiko

kanonetatik urrun dagoena, egilearen obra bat kortse guztietatik askatua, eta kontaktea jolasa.

Harkaitz Canoren Silueta lanak ere badu anti-doxa bide horren ezaugarriak. Inon ez den obra bati buruzko iruzkinak osatzen dute lana. Obra ez dago, ez da. Baina hark sortzen du zurrunbiloa. Iruzkin batzuk obrari buruzkoak dira, beste batzuk, aldiz, iruzkinen iruzkinak, panpina errusiarrak, eta errealtatean geratu dena, pelikula poliziakoe-tan bezala, hildakoaren marra, silueta besterik ez zaigu geratu. Canok izan du abangoardia maitatzeko joera, eta lan honi buruz ere esan dezakegu poli-cano dela, poli-ahosduna, poli-jokoa, errealtate den hori ezin adierazteko poli-diskurtsoa.

## Aspaldikoak eta gaurkoak

Isilune baten ondoren berriro agertu diren artean Laura

Mintegiren Akabo nobela aipatu beharko genuke. 19 urtez argitaratu gabe egon ondoren, bere pertsonaien psikologian barneratzera dator berriro egilea. Thriller baten aurrean gaude, lehen orrian jada badakigu zein den hiltzailea, baina ez nor den hildakoa. Esango nuke Patricia Highsmithen usaina duen kontakizuna eskaini digula Mintegik, espazioaren errealismoari garrantzi handia emanez.

Lourdes Oñederrak ere urteak eman ditu bere nobela berria ontzen. 2013koa zen bere aurreko lana. Eta Azken batean nobelak bere narratibaren pausoak jarraitzen ditu. Pertsonaia femeninoak, ama-alaben arteko komunikazioa, giro politikoaren agerpena... eta idazkera zaindua eta erritmikoa. Memoriari buruzkoa da nobela: «Gatibu gara denboraren tiobiboan» eta geratzen zaiguna «atzera begira baino ez» da. Eta horretan dihar-

«Durangoko uholdearen ondoren heldu ez ditugun beste nobela batzuk hartuko ditugu»

du nobelak, nahiz eta pertsonaia gaiztoaren irudia gaiztoegi osaturik dagoen, nahiz eta Gaizkiaren sinbolo bihurtu nahi izan duen egileak.

Beste egile batzuk, ordea, ez dute horrenbeste denbora utzi aurreko argitalpenaren eta gaurkoaren artean. Eider Rodriguezek, ohi duen maisutasunez, Dena zulo bera zen ipuin bilduma eman digu. Gorputza nagusi da beti bere kontakizunean, baina pertsonaion psikologia tentu handiz jositako dago. Ipuin batean pertsonaia zulo bat egiten du, eta bikoteari galdetzen dionean zertarako erabiliko duten zuloa: «Ezertarako ez. Zulo bat da» erantzuten dio. Komunikazio zailaren zuloan mugitzen dira izakiak ipuinotan. Esan nahi ez dutena esaten dute pertsonaioi maiz, beste batzuetan nahi izan arren ez dute ongi adierazten esan nahi duten hori, eta askotan zuzen esaten badute, gaziki ulertuak sortzen dira istoriotan.

Durangoko uholdearen ondoren modua izango da oraingoz heldu ez ditugun beste nobela batzuk irakurtzeko, hartuko dugu arnasa eta hasiko gara Katixa Agirreren, Danele Sarriugarteren eta Arrate Egañaren nobelak esku artean eramaten.

## Zahartzeko modu bat

AIORA SAMPEDRO

'Zahartzaroaren maparen' bila izenburuz eman du Arantxa Urretabizkaiak bere azken lana. Saiakera den liburu honek izenburu iluna izan dezake hasiera batean baina egileak lehen orrialdeetan argitzen duenez, iragan garaian lur berrien eskizari irudikatzen ziren mapei egiten die erreferentzia. Hala bada, Urretabizkaiak zahartzarora gerturatu ahala, haren inguruko gogoeta batzuk pilatu ditu testu-bilduma honetan, eta haien oraino arteko hutsunea aldarrikatu du, literatur tradizioan begiratzen hasi zenean, ez baitzuen topatzen gaztaroari nahiz helduaroari buruz topatutako erreferentzia adina lan zahartzaroari buruz. Hartara, liburu honetan konkistatzeke dagoen lurzoruan barneratzen da Urretabizkai

esploratzailea eta gaur egun zahartzarotzat jotzen denaren inguruko auzietan zehar ibiltzen da: utzikeria, zaintza, ilusio falta... topiko guztiak jorratzen ditu.

Liburuaren hasieran zahartzaroari buruzko erreferentziak urriak direla azaltzen bada ere, Urretabizkaiak bere hausnarketak hainbat egileren testuetan lagunduz planteatzen ditu eta horietan, nabarmentzekoak dira, bereziki, emakume feministen ekarpenak: Mari Luz Esteban, Laura Freixas eta Maruja Torresen lanek hasieratik amaiera

rara arte laguntzen diote hondarribiarrari giza-kondizio honetan topatzen dituen kontraesanak eta zantzak proposatzeko.

Liburuaren formatuak irakurketa errazten du. Egunkari bateko zutabeen tonutik gertu eta apur bat luzeagoak izanda, hausnarketarako beta hartzen du Urretabizkaiak, baina beti ere tonu testimonial batetik hizketan. Testu erreferentzial zientifiko bat sortzeko asmorik gabe, baizik eta, testuaren hasieran adierazten duen bezala, garai honetara hurbildu nahi duenarentzat makulu gisa funtzionatzeko.

**ZAHARTZAROAREN MAPAREN BILA**  
ARANTXA URRETABIZKAI  
Pamiel  
16 euro,  
106 or



## Bi munduren artean

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES


Kontraesankorrak edo joan-etorrikoak diren joeren arteko tentsioan oinarritzen da Urienen fikziozko lehen lana. Konplexurik gabe seinatzen ditu gizakiaren ahuldadeak. Lehen ipuinak bataiatzen du liburua; eta eraikitzen duen protagonista interesgarria da oso. Haren bitartez, baserrian emakumezkoen lekua zein izan den erakusten du eta baserriko mundu ikuskera eta kalekoa aurrez aurre jartzen ditu: inimitatearen kontzeptua, animaliak tratatzeko modua, jakintza eta teknologia... Erroei kateatuta dago, baina askatzeko beharra ere sentitzen du. Eraikitzen duen atmosfera hain da indartsua ezen hurrengo sei ipuinak zipriritzen baititu. Lehen zaldia trostan sumatu orduko atzetik datozkio hurrengo laurogeita hemeretziak. Bigarren ipuinean jotzen du goia; 'Gabonetako oparia' euskal kulturaren eta latindarraren arteko koalizioan eraikitzen da, kultura denaren eta gutxietsitako herri-jakin-

duria dikotomien artean dabil dantzan. Kontakizuna sintetikoa da eta tentsioari eusten dio. 'Olinpiadek lasaitu egiten nauten' ipuinean ere informazioaren dosifikazioa maisuki menderatzen du idazleak. Ideltasuna, desioa eta nortasunaren erakuntza gai zentralak dira eleberri koral honetan. Animalien portaera zentrala da liburuan; ipuin gehienetan ageri dira emozioen indargarri edo joera gizatiarren

kontrasteak; 'Atzera kontaketa bat katastrofera' ipuinean katu baten garunetik osatzen du kontaketa osoa. Ipuin solteen artean loturak txirikordatzeko ofizioa erakusten du Urienek.

Arabako Foru Aldundiak lehenengoz antolatutako Ignacio Aldekoa bekari esker findu du liburu hau idazleak. Nabarmentzekoak dira ipuin bakoitzaren hasierarako hautatu dituen erreferentziak eta haien hitzak, eta ipuinetan gozagarri ageri da greziar mitologiaren eta korronte filosofikoen inguruan duen jakintza. Dudarik gabe, 2025ko altzorretako bat.

**EHUN ZALDI TROSTAN**  
AINHOA URIEN  
Elkar  
148 orr, 15,50 euro



## SALDUENAK

### FIKZIOA

- 1 **Enarak** Bernardo Atxaga. Pamiela.
- 2 **Barne zerbitzuak** Katixa Agirre. Elkar.
- 3 **Dena zulo bera zen** Eider Rodriguez. Susa.
- 4 **Hetero** Uxue Alberdi. Consonni.

### EZ FIKZIOA

- 1 **Harrizko bihotza** Karmele Jaio. Elkar
- 2 **Esnatu ala hil** Garikoitz Goikoetxea-Iñaki Iurrebaso. Elkar.
- 3 **Gabriel Aresti** Jon Kortazar. Pamiela.
- 4 **Esne berriketan** Uxue Alberdi. Elkar.